

Irati Gorostidiren «Baga Biga Higa» bideoaren aurkezpena. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

# Mikel Laboaren «lekeitioetan» oinarritutako «Baga, Biga, Higa» bideo-lana aurkeztu dute

**Soiltasuna bilatu du Irati Gorostidik «Baga, Biga, Higa» bideo-lana osatzeko. Mikel Laboa Katedraren bidez egin duen lan honetan Manuela Carretta dantzaria agertzen da euskal artistaren obra interpretatzen.**

Amalur ARTOLA | **DONOSTIA**

"Baga, Biga, Higa" izan zen Mikel Laboak jendaurrean abestu zuen lehen *lekeitioa*, 1969an. «Bere ahotsa aparta zen garai hartan. Abestu zuenean, jendea harrituta geratu zen, batzuk txistuka, besteak dardaraz», ekarri zuen gogora Juan Gorostidi ekoizleak. Sentipen horretatik abiatuta osatu du Irati Gorostidik "Baga, Biga, Higa" bideo-lana, EHUren Laboa Katedraren laguntzaz. Bertan, aipatu abestian oinarrituta Manuela Carretta dantzari italiarrak sortutako koreografia ikus daiteke; flamenkoa dantzatzen ikus daiteke hasieran eta, abestiaren intentsitate maila goratzen doan heinean, sentipenei hegaldatzen utzi eta sorginkeriazkoa dirudien dantzakeran barneratzen da.

Hau ez da Laboaren *lekeitioen* gainean egin den bideo-lan bakarra. Lehena, "Orreaga", Carrettak berak egin zuen. Bigarrena, "Gernika Lemoizen", orain "Baga, Biga, Higa" aurkeztu duten aita-alaben eskutik etorri zen. Hirurek jaso dute Laboa Katedraren laguntza.

Azken honetan, aurrekoan bezala, ekoizpen lanetan aritu da Juan Gorostidi. Carreta aspaldiko laguna dutela aipatu zuen eta Euskal Herrira etorri zen batean Laboaren *lekeitioak* jarri zizkiola, bere erreakzioa ikusteko. «Berarentzat kolpea izan zen eta ikerketa lan bat abiatu zuen, 'Haika Mutil'-ekin». Italian ekoitzi zuen "Orreaga" eta, horren ostean, Iratik hartu zuen erreleboa, "Gernika Lemoizen" (iazko apirilean estreinatu zen, Donostiako Victoria Eugenian) obrarekin: «Hura egin genuenean erreferente historiko potenteekin lan egin genuen; ia dantza eta musikaren gainetik geratu ziren. 'Baga, Biga, Higa'-k soiltasunera joateko aukera eman digu, dantzariarengandik gertuago jartzekoa. Askatasun handia izan dut lan hau egiteko eta, nolabait, kamera dantzariarekin fusionatzen da», nabarmendu zuen Iratik.

**Laboaren obra, «hurbilegi»**

Juanen hitzetan, hiru pieza hauen bidez Laboaren obrara hurbilketa bat egin nahi izan dute. «Venezian egon nintzenean, Laboaren obra guretzat oraindik hurbilegi dagoen irudipena izan nuen, obra eta pertsona nahasiegiak daudela. Bilatu gabe, distantzia berri bat aurkitu dugula esan dezakegu». Lehen bideo-lana Italian eta italiar batek egin izanak distantzia hori bere kabuz lortu zuela iritzi zion, eta horrek emaitza aberasten duela. Horregatik, "Baga, Biga, Higa" egiteko orduan distantzia hori bilatzea izan dute helburu: «Ezintasun bat sumatzen genuen musika hori tratatu eta interpretatzeko orduan, eta horregatik erabaki genuen distantzia hori hartzea. 'Baga, Biga, Higa'-n hurbilketa hori fusio bilakatzen da ia, koreografia, musika eta irudiaren txertaketak erabat egiten dute bat».

Bideo lanean flamenkoan ohikoak diren oinetako eta gonarik gabe ageri da Carretta. Iratik azaldu zuenez, «Manuelarentzat oso gogorra izan zen horiek kentzea, berarentzat biluztearen pareko baita. Baina janzkeran ere agertzen den soiltasun horri esker koreografiaren indarra ikusgarria da».

Bideo-lanaren hasieran Carrettaren oinak soilik ikusten dira dantzan, orbelez estalitako taularen gainean. Kamerak bularraldetik gora gertatzen dena erakusten du gero, Carretaren eskuak eta hosto orlegiz jositako zuhaitzak erakutsiz. Bideoaren erdialdera, planoa urrundu eta dantzaria osorik ikus daiteke, harik eta irudia lausotu eta arreta xehetasunetan finkatzen den arte. Abestiak aurrera egin ahala indarra hartzen doa, flamenkoa ia desagertu eta sentipenek gidatutako dantza libre bihurtzen den arte.

Oraindik zine jaialdietan aurkeztu behar dutenez, bideo-lana ez dago ikusgai, baina sarean (Vimeo) *teaser*-a topa daiteke.

# La ciudad checa de Pilsen estrena hoy su capitalidad europea de la cultura 2015

GARA | **PILSEN**

La ciudad checa de Pilsen, en Bohemia occidental, está lista para lucirse este año como capital cultural europea 2015, con un amplio programa en el que destacan espectáculos de teatro urbano y proyecciones multimedia en 3D.

La puesta de largo de esta ciudad cervecera e industrial como capital cultural comienza hoy, tras cinco años de preparativos que han supuesto un desembolso de unos cien millones de euros.

En medio de una gran expectación, los «pilsianos» esperan así que su ciudad, de unos 170.000 habitantes, recupere el histórico lugar que tenía antes de sucumbir en la Segunda Guerra Mundial cuando fue completamente destruida.

Los vecinos están convocados al acto de apertura, con cuatro grandes marchas, símbolos de los cuatro ríos que cruzan Pilsen, creaciones plásticas de miles de escolares y toda una parafernalia de vehículos típicos de esta ciudad.

En la plaza de la República, situada en el centro histórico, se ofrecerá un espectáculo en 3D proyectado sobre las fachadas y muros de la iglesia gótica de San Bartolomé, que entonará una «sinfonía de campanadas».

Una partitura para la ocasión, de Marko Ivanovic, acompañará las proyecciones que, mediante la tecnología «vídeo mapping», convertirán la plaza en una escena tridimensional.

Petr Forman, hijo del cineasta checo-americano Milos Forman y director artístico de Pilsen 2015, ideó otro espectáculo, de estilo circense, con más de ochenta artistas checos y extranjeros.

Entrada la noche, la fiesta se desplazará hacia los barrios periféricos de la ciudad, convertidos en gran zona peatonal.

En los edificios históricos, museos, galerías, librerías, bares y clubes musicales las celebraciones irán acompañadas con música, baile, canto, teatro y poesía, señalan los organizadores en su web.

Cincuenta grandes eventos culturales en espacios públicos y otras 600 funciones se darán cita a lo largo de todo el 2015 en Pilsen, una ciudad que alberga la conocida cerveza Pilsen Urquell.

Uno de los platos fuertes será el nuevo circo, representado por compañías como la francesa Le Manège Carré Senart, la canadiense Cirque Alfonse y los acrobáticos galos Akoreacro.

El programa de eventos, que absorberá otros 20 millones de euros, ha sido financiado casi en su totalidad por instituciones locales.

Los organizadores de Pilsen 2015 esperan atraer a medio millón de visitantes este año y aumentar las pernoctaciones en un 35%.

Las inversiones en obras se han elevado a 80 millones de euros, siendo los principales proyectos el nuevo teatro J.K.Tyl, la nueva Facultad de Arte y Diseño, la renovación del Centro de la Ciencia Techmania, y la antigua fábrica de cerveza Svetovar. Pilsen comparte la capitalidad cultural de Europa 2015 con la ciudad de Mons, en Bélgica.


ANDOAIN
Andoaingo Udala




bastero
Bastero Kulturgunea
Dindarreta 1B
20140 - Andoain
Tlf. 943 30 35 40
http://basterokulturgunea.blogspot.com/
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
kutxabank